


Aspirinaren gaitasun anitzak

Salzilatoak minbizitik babesteko izan lezakeen mekanismoa aurkitu dute

Aspirina botika kroniko gisa hartzen duten pertsonekin egindako azterketetan albo-ondorio mesedegarri bat atzeman zuten: itxuraz, epe luzeko babesa ematen du minbizi batzuen aurka (*The Lancet*, 2011). Orain, Eskoziako Dundeen Unibertsitateak zuzendutako ikerketa batek balizko mekanismoarekin jo duela argitaratu du *Science* aldizkariak: salzilatoak —aspirinaren metabolitoak— AMPK entzimaren jarduera aktibatzen du, hain zuzen ere, zelulen hazkundea eta metabolismoa erregulatzen dituen entzima garrantzitsu bat.

Salzilatoak *in vitro* eta *in vivo* duen eragina aztertu dute ikertzaileek, alde batetik, gibleko zelulekin, eta, bestetik, saguekin. Zelulen eta saguen jarduera metabolikoa areagotu egiten zen salzilatoaren ondorioz; AMPK entzima jariatzeko gaitasunik ez zuten knockout saguetan, berriz, ez zen halakorik gertatzen. Ikertzaileen esanean, AMPK mekanismoaren bidez azal liteke aspirinak minbizi batzuetatik babesteko duen gaitasuna. ●



Azido azetil salzilikoa. Salzilatoak, haren metabolitoak, minbizi batzuetatik babesteko gaitasuna du. ARG.: BEN MILLS/DOMEINU PUBLIKOAN.

Bakterio antibiotikoekiko erresistenteen birulentzia handitzen duen gene bat aurkitu dute

Bakterio antibiotikoekiko erresistente batzuk birulentoagoak egiten dituen gene bat aurkitu dute Estatu Batuetako NIAID institutuko ikertzaileek; eta gene hori hedatzen ari dela ikusi dute. *Nature Medicine* aldizkarian argitaratu dituzte ikerketaren emaitzak.

Staphylococcus aureus metizilinarekiko erresistenteak (MRSA) gero eta arazo gehiago ari dira eragiten mundu osoko ospitaletan. Kasu honetan, Asian zabaldua dagoen andui batean ikusi dute sasX genea duten bakterioak birulentoagoak direla

gene hori ez dutenak baino. Bakterioen azaleko proteina bat kodetzen du sasX geneak, eta ikertzaileen esanean litekeena da proteina horri esker bakterioak elkarren artean estuago lotu eta multzo trinkoagoak osatzea, eta, ondorioz, zelula immunologikoentzat erasotzeko zailagoak izatea.

Bestalde, ikertzaileek ikusi dute beste andui batzuetara hedatzen ari dela gene hori. Hain zuzen ere, 2003-2005 bitartean jasotako laginetan, sasX genea zeukaten bakterioen % 95 andui berekoak ziren; eta, 2009-2011 bitarteko laginetan, berriz, % 72ra jaisten da proportzio hori. Oraingoz, Asian dago zabaldua, batez ere, gene hori, baina ikertzaileek ohartarazi dute arriskua dagoela gehiago zabaltzeko, eta proposatzen dute sasX genea kontuan hartzea bakterio horiei aurre egiteko botika edo txerto berriak garatzeko itu gisa. ●



MRSA bakterioen (berdeak) eta leukozito baten arteko elkarrekintza. ARG.: NIAID/NIH.